



Irudia: Barakaldo Digital

Uztailaren 1 eta 2an hogei bat ume Saharar helduko dira Barakaldora, udako hilabeteak hemengo familiekin batera pasatzeko, "Oporrak Bakean" ekimenaren barruan. Ekimen honen helburua, ume hauek Saharako desertuan bizi duten bizitza egoera gogorak leuntzea da. Egoera gogor horien adibide bat izan daiteke udan pairatzen dituzten 50 graduko temperatura. Hilabete hauetan hemengo familiekin egon, lagunak egin eta kultura elkarbanatzeaz gain, elikadura eta medikuntza azterketak egingo dizkiete.